

Soran

Pasarte Historikoa

Herrien Historia eta egunsentiak badute antzekotasunik, izan ere, biek dute jatorritzat gauaren iluntasuna. “Gatzaan...gatza”.

Adituen esanetan, Gatzaga hiri izatera iritsi omen zen 1.331. urtean, Alfonso Xiaren eskutik. Hala ere, Dorletako iturburuan iberiar txanponak aurkitu izanak hainbat zalantza eragiten dizkigu.

Gatzaga Santiagoko bidean zihoazen erromesen pasagune izan zen. Hiriaren sortzapenetan harresiak inguratzen zuen sarbiderako zazpi aterekin, zazpi santuk babesten zutena. Gaur egun badira hoietako lau.

XV mendean harrizko eraikinak altxatu zituzten, horietako batzu luxuzkoak, Soranen Jauregia hauen artean. Soran Jauna hiriaren lehen hamaika bizilagunen artean kokatu dezakegu.

Ondorengo urteetan, Leintz Gatzaga Madriletik Irunera arteko galtzadatik abiatzen ziren ibiltari eta jarraigoen derrigorrezko pasabide bilakatu zen. Soran Jauregia Erregeen egonaldiaren parada izan ohi zen. Ezin ditzakegu era zehatzen guztiak aipatu, baina beste askoren artean aipatu ditzakegu: Enrique II (1.374), Enrique IV (1.463), Felipe II (1.615), eta Asturiasko printzesa (1.619).

Nor zen Soran

Alfonso XIIak Gatzagaren hiri izaera onartu eta berrogei urte beranduago, Beltran de Guevarak (Oñatiko Kontea) eskuratu zuen gatzagen ustiakuntza eta herriaren jabetza Enrique IIaren eskutik.

Ehun eta hogeitaz beranduago Soraneko Jaunak hartu zuen bere gain Oñatiko Kontea auziperatzeko ardura, bai eta auzia irabazi ere. 1.493.ean, errege katolikoaren sinadurak babesturik gatzagen ustiakuntzarako eskubidea herriaren eskuetara itzuli zen.

...“gorespina eta ospea Gipuzkoako herri industrial aitzindariari: Leintz Gatzaga, beharbada, 40.000 urteko antzintasuna gordetzen duena...”

Enlaces de interés que hacen referencia a la historia de Salinas de Léniz: (para ambas versiones en euskera y castellano):

<http://www.ingeba.euskalnet.net/klasikoa/geografi/mug304/10731076.htm>